

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektuak funtziona dezan hainbat jarduera egin behar dira. Gure kasuan lehentasun gehiena dituzten jarduerak kanpoko enpresa batzuek eramango dituzte, lehen esan dugun bezala txipa eta pultsera beste enpresa espezializatu batzuek egingo dutelako.

Hasieran txipa egingo da eta bukatutakoan pultsera egiten duen enpresari bidaliko diogu honekin batera pultsera bukatzeko. Produktua bukatutakoan guri bidaliko digute internetetik saltzeko.

Jarduera bat izango dugu, ZANN enpresak, produktua saltzea eta bezeroei bidaltzea izango dena. Internetetik salduko dugunez, produktua bezeroari iristeko egun batzuk itxaron beharko dira. Bezeroak produktua erosi eta gero, aplikazioan bere produktua erosi den unetik bezeroarengana iristen den unerako prozesua ikusi dezake, hau da, produktua non dagoen jakingo du; stockan, banatzailearen eskuetan dagoen...Gainera, guk ez dugu denda fisikorik izango baina denda espezifiko batzuei gure produktua salduko diegu erraztasunez erosteko.